



www.begiko.com

© Testua: 1997, JON ARRETXE

© Irudiak: 1997, KRISTINA FERNANDEZ

© Argitalpen hau:

2019, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-09-4

Lege-gordailua: M-16275-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Bigarren argitalpena: 2019ko iraila

Hamabostetik gora berrargitalpen Zubia argitaletxean

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Harresi Handirantz

Jon Arretxe

Irudiak: Kristina Fernandez

begiko



Ametsa

Rama hamahiru urteko mutila zen. Indiako Ozeanoko Sri Lanka uhartean, Indiatik hegoaldera, bizi zen gurasoekin, mendialdeko etxola apal batean. Oso txiroak ziren. Aitak egun osoa basoan egurra batzen ematen zuen. Amak jauntxo baten arroz soroetan egiten zuen lan eta Ramak herriko gizon aberats baten ardiak zaintzen zituen. Hiruren artean ozta-ozta irabazten zuten bizimodua aurrera ateratzeko behar beste. Gainera, hilaren bukaeran etxolaren alokairua ordaindu behar izaten zuten, eta estu eta larri ibiltzen ziren horretarako. Jabea errukirik gabeko gizon krudela zen eta sarritan egiten zizkien mehatxuak etxetik botatzeko, baita aita salatu eta kartzelara bidaltzeko ere.

Familia hain behartsua izanik, Ramak denbora gehiena lanean pasatu behar izaten zuen eta oso gutxitan agertzen zen herriko eskolan.

Gainera, azaltzen zen bakoitzean barregarri geratzen zen ikaskide guztien aurrean, zeren inoiz ez zuen asmatzen irakaslearen galderi erantzuten.

8 —Ea, Rama, zein da Indiako hiriburua? —galdetu zion behin irakasleak.

—Zera... Pekin? —erantzun zuen mutilak.

—Pekin? Pekin? Pekin Txinan dago! Indiako hiriburua Delhi da, asto hori! Eskolara sarriago etorriko bazina, ondo jakingo zenuke hori! —esan zion irakasleak haserre.

Ramarentzat leku haiek guztiak: Txina, India, Pekin, Delhi... berdinak ziren. Belarriz ezagutzen zituen, noiz edo noiz entzunda zeuzkan, baina ez zuen ideiarik ere non zeuden. Eta berdintsu gertatzen zitzaion beste hainbat gauzarekin.

Horren ondorioz, gainerako ikasleek iseka egiten zioten eta «tentela!», «leloa!», «astakirtena!» eta antzeko gauzak esaten zizkioten.

Horregatik, Rama triste eta lotsatuta sentitzen zen eskolatik ateratzen zen bakoitzean. Amorru handia ematen zion bere jakituria faltak eta are gehiago amorratzen zen, gurasoak gauero lanetik pot eginda bueltatu arren, etxean zein diru gutxi sartzen zen ikustean.

Baina zelan irten egoera hartatik? Zelan bihurtu jakintsu eta aberats, bizitzaz benetan gozatzen hasteko?

9

Ramak sarritan izaten zituen horri buruzko ametsak, batzuetan esna eta beste batzuetan lo. Bere burua hiriko etxe eder baten barruan imajinatzen zuen eta gurasoak oso arropa txukun eta dotorez jantzita ageri ziren bere aurrean. Baina itzartzen zenean, beti aurkitzen zuen bere burua etxola berean, gela bakaerreko etxola txiki eta apal hartan.

Hala ere, gau batean, mutikoak amets berezi bat izan zuen. Agure bat ikusi zuen aurrez aurre. Bizar zurikoa zen, turbantea zeukan buru bueltan eta lanbro artean legez ageri zen. Honela hitz egin zion:

—Rama, mutil zintzo eta langilea zara eta lagundu egin nahi dizut. Zure ezjakintasun eta pobreziatik irten nahi duzu? Itzal handiko gizon aberatsa izan nahi duzu nagusitan? Horrela bada, zure herrixkaren osteko mendi puntara igo. Harrizko ate bat aurkituko duzu bertan. Ireki atea eta sartu. Han barruan mailagarri asko bizi dira. Eskatuz gero, zure helburua betetzen lagunduko dizute.

Eta hori esanda, agurearen aurpegia desegin egin zen lanbro artean.

Esnatzean Rama ez zen asko arduratu amets harengatik. Izan ere, sarritan izaten zituen antzeko irudipenak eta, horregatik, berehala ahaztu zen bizar zuriko agurearen hitzez.

Baina hurrengo gauean ere amets berbera izan zuen. Eta hurrengoan ere bai. Ez zitzaion inoiz amets bat hiru aldiz errepikatu eta esperantza izpi bat piztu zen bere baitan. Gainera, hirugarren hartan, agurea temati agertu zen:

—Rama, ez izan sinesgogorra. Igo mendi puntara. Aukera hori ez duzu beti izango. Ilar-

gia guztiz betetzen denean, maitagarriak beste leku batera joango dira bizi izatera. Orduan beranduegi izango da laguntza bila joateko eta denbora gutxi falta da horretarako.

Mutikoa esnatu, etxolatik kanpora irten eta zerura begiratu zuen. Egia zen, ia ilbetea zegoen. Amets errepikatua serioago hartu zuen orduan.

11

Hurrengo goizean gurasoak, egunero bezala, lanera joan ziren. Ramak ardiak zaindu behar zituen, baina artaldea bakarrik utzita, mendi tontorrerantz abiatu zen. Janariz betetako poltsa bat zeraman aldean.

Ordu batzuk behar izan zituen goraino heltzeko. Ordurako arratsaldea zen. Harrizko atea aurkitu eta sartu egin zen. Koba handi baten barruan zegoen eta maitagarri eder asko ikusi zuen bertan. Haiek ez zeukaten janaririk eta Ramak poltsan zeraman guztia eman zien. Atseginez jan zuten dena eta gero, esker onez, zera galdetu zioten:

—Zertan lagundu ahal dizugu, mutiko?

—Txiroa eta kultura gabekoa naiz eta gurasoekin batera pobrezia gorrian bizi naiz. Egoera hori guztiz aldatzea nahi nuke, baina ez dakit zer egin dezakedan horretarako.

—Edozer egiteko prest zaude hori lortzeko?

—Edozer.

12 —Baita etxetik alde egin eta bidaia luze bat egiteko ere?

—Egin behar dena egingo dut.

—Ederto. Iparralderantz joan behar duzu. Txina deritzon herrialde zabal-zabal batean sartu eta, han zaudela, Harresi Handia bilatu. Bidean amore ematen ez baduzu, harresi horretan altxor bat aurkituko duzu, jakintsu eta aberats bihurtuko zaituen altxor bikaina, hain zuzen.

—Baina ez dakit non dagoen herrialde hori!

—Bidean galdetu.

—Eta harresi horretara helduta ere, non bilatu beharko dut altxorra? Zein lur zatitan egin beharko dut zuloa?

—Gaur gauean amets bat izango duzu eta bertan puntu zehatz hori agertuko zaizu begi



aurrean. Ondo gogoratu hara heltzen zarenerako, heltzen bazara. Eta orain alde egin behar duzu —moztu zuten maitagarriek—. Berehala ilunduko du. Gaur ilbetea dago eta prestakuntzak egin behar ditugu beste bizileku batera joateko.

14 Rama kobazulotik kanpora irten zen, pixka bat nahasita, baina pozik eta esperantzatsu aldi berean. Korrika jaitsi zen etxeraino, guztiz ilundu aurretik ailegatzeko.

Eta gau hartan bertan, maitagarriek esan bezala, amets argigarria izan zuen: bera ardiak zaintzen zegoen, zelai batean etzanda. Halako batean arrano beltz izugarri handia hurreratu zitzaion hegaz eta garrasika. Hasieran Rama beldurtu egin zen, baina berehala konturatu zen hegaztiak ez zeukala kalte egiteko asmorik. Alderantziz, arranoa lurreratu eta makurtu egin zen bere aurrean, bizkarraldea eskainiz. Rama gainean jesarri zen, lepoko lumetatik heldu zion eta arranoa hegaz igo zen zerurantz.

Bidaia bizkor eta zoragarria egin zuten denbora laburrean. Lehenengoz itsasoa zeharkatu zuten. Gero, hiri handien eta ibai zabalen gainetik pasatu ziren. Hortik gutxira mendi zuriak ikusi zituzten, basamortu hori bat ere bai eta, azkenean, kilometro askotan luzatzen zen lerro moduko bat ikusi zuten. Mendi batetik bestera zihoan, bihurgune mordo eginez, izugarrizko suge bat balitz bezala. Arranoa jaisten hasi zen ziztu bizian eta hurbilagotik ikusi zuten lerro hura. «Horrek izan behar du Harresi Handia» pentsatu zuen Ramak, haren egitura ikustean. Zati batzuetan berri itxura zeukan horma itzel hark eta horrelako tarte bat amaitzen zen lekurantz joan zen arranoa.

15

Gutziz arin, joan ere. Garrasi eginez jo zuen beherantz hegaztiak. Rama beldurtu egin zen. Bizkorregi zihoazen eta bertan burua apurtu behar zuela iruditu zitzaion. Zeharo izututa, arranoaren lepoko lumei gogor oratu zien, begiak itxi zituen eta...

Eta esnatu egin zen bat-batean. Etxolako ohean zegoen, izerditan. Gurasoak lo zeuden eta ia egunsentia zen.

16 Pixka bat lasaitu eta berehala ulertu zuen mezua, ametsaren zentzua. Damutu egin zen begiak hain arin ixteagatik, ezin izan baitzuen argi eta garbi ikusi altxorrak ezkutatuta egon behar zuen leku zehatza: harresi berria amaitu eta zaharra hasten zen tokia, mendialdea, arbola handi bat... Halako zehaztasun batzuk bakarrik zituen gogoan. Dena dela, lehenengo pausoa, eta zailena, haraino heltzea zen. Izan ere, horretarako itsasoa, hiri handiak, ibai zabalak, mendi zuriak eta basamortua zeharkatu beharko zituen. Eta txarrena zen ez zekiela nondik hasi.

Lehenengo eta behin, gurasoak konbentzitu behar zituen alde egiten uzteko. Denbora galdu barik, egun hartako afalostean atera zuen gaia Ramak:

—Ene guraso maiteak, oso familia txiroa gara eta ezin dugu honela jarraitu. Uste dut aur-

kitu dudala egoera penagarri honetatik ateratzeko bidea.

—Zein da bide hori, ume? —galdetu zuen amak harrituta.

Eta Ramak dena kontatu zien gurasoei: izandako ametsak, mendi puntara egindako ibilaldia, hango maitagarriekiko elkarrizketa...

—Seme, zentzua galdu al duzu? Zer kontu arraro dira horiek? —galdetu zion aitak, sinestogor.

—Honela jarraituz gero, bai galduko dudala zentzua, aita. Ezin dugu honela luzaroan iraun. Edozein egunetan etxerik gabe geratuko gara eta zuk kartzelan amaituko duzu. Pentsa ezazu zelan geratuko ginatekeen ama eta biok zu gabe. Pobrezia honetatik irten behar dugu eta orain-txe daukagu aukera. Utzi abiatzen, mesedez!

—Baina oraindik oso gaztea zara —esan zion amak.

—Hamahiru urte dauzkat honezkero, hortik zehar bakarrik moldatzeko nahikoa. Gainera, alde egiten badut aho bat gutxiago izango

da etxean, sabel bat gutxiago betetzeko. Eta nire bidaiatik arrakastatsu itzultzen banaiz, hirurok zoriontsu bizi izango gara betiko. Utzi saiatzen, mesedez! —erregutu zuen azkenean Ramak.

18 Gurasoak isilik egon ziren aldi batez, bata besteari begira, zer esan jakin barik. Azkenean, aita mintzatu zen:

—Tira, seme. Nahi duzun bezala.

—Eskerrik asko, aita! —esan zuen mutilak, pozarren—. Baina arazo txiki bat daukat.

—Zein?

—Ez dakit nondik hasi. Ez dakit zein itsaso zeharkatu behar dudan iparralderantz abiatzeko.

—Guk ezin dizugu argibide handirik eman, seme. Ez gara inoiz eskolara joan eta gure uharte honetatik kanpoko berririk ez dugu. Hobe duzu hasteko Lakshmanagana joatea. Hirian bizi da, Kolonbon. Oso agure zintzo eta jakintsua da, uharte honetako jakintsuena, duda barik. Eta laguntzeko prest izango duzu, ziur.

Berandu zen ordurako eta lotara joan ziren etxeko hirurak. Rama oso pozik oheratu zen, hurrengo goiza lehenbailehen heltzeko irrikan.

Eta hurrengo goiza heldu zen. Gurasoek poltsa bat jakiz bete eta agur egin zioten penatuta.

—Zaindu zeure burua, ume. Eta ez ahaztu hemen utzi dituzula gurasoak zain, zu berriro ikusteko irrikan —esan zion amak tristuraz.

19

Mutila orduan uharteko herri handiene-rantz ibiltzen hasi zen. Mendebaldeko kostaldean zegoen, bere herrixkatik urrun samar, eta egun bi behar izan zituen haraino ailegatzeko.

Han, gurasoek aholkatu bezala, Lakshmana jakintsuaz galdetu zuen eta herriko etxe ederrenetako batera bidali zuten.

Etxe hartan sartu, agurearen aurrera ailegatu eta harri eta zur geratu zen. Lurreko alfonbran jesarririk begiratzen zion gizon hura bere ametsetan hiru aldiz agertu zitzaion berbera zen, bizar zuriko eta turbanteko agurea, hain zuzen.

Zer esan ez zekiela geratu zen mutil gaztea eta gizonak, irribarre gozoa eginez, honela hitz egin zion:

—Sartu, Rama, sartu eta jesarri. Zure zain nengoen. Ikusten dut zuzen jokatu duzula eta uste dut ez zarela damutuko. Zertan lagundu ahal dizut?

20 —Zera... —hasi zen esaten mutila, totelka—. Uste dut badakizula nor naizen.

—Badakit. Jarraitu, mesedez.

—Ba... maitagarriek Harresi Handia deritzon leku bateraino joan behar dudala esan zidaten. Ametsetan, lehenengo eta behin itsaso bat zeharkatu behar dudala ikusi nuen, baina ez dakit zein itsaso den hori.

—Hori da arazoa? Ez kezkatu. Itsaso hori herri honen aurrean dagoena da. Ontzi batean sartu behar duzu eta Indiara, Kalkuta izeneko hirira joan.

—Eta gero norantz joko dut?

—Bertan galdetu.

—Nori galdetu?

—Ez arduratu asko horregatik. Beti aurkituko duzu norbait. Dena dela, argi izan behar duzu norgana jo laguntza eske. Jende zaharra da gehien lagundu ahal dizuna, jende zaharra izaten baita jakintsuena nonahi. Hori bai, pazientzia izan beharko duzu, jende zaharrak pazientzia behar baitu.

Ramak ez zuen ondo ulertu azken berba haien zentzua, baina ez zuen ezer galdetu horri buruz. Dena dela, beste kontu batekin arduratzen zena zeukan.

—Beste arazo bat ere badaukat. Ez dut sosik ere. Zelan sar naiteke ontzi batean diru barik?

Orduan agureak, Ramaren belarri ostetik, urrezko txanpon bat atera zuen eta, mutikoari emanaz, zera esan zion:

—Honekin nahikoa duzu Kalkutaraino iristeko. Eta orain alde egin behar duzu, jende gehiago baitago zain, arazoak kontsultatzeko eta nire aholkuak entzuteko. Ez ahaztu esan dizudana. Zaharrak bilatu, pazientziaz jokatu eta ez etsi. Zortetik onena opa dizut. Ikusi arte.

Rama pozik irten zen agurearen etxetik. Portura jaitsi eta Kalkutara eraman behar zuen ontzian sartu zen. Urrezko txanponarekin bidaia bera eta jatordu guztiak zeuzkan ordainduta. Alde batetik esperantzatsu zegoen, baina beste aldetik larritasun apur bat ere sumatzen zuen, zeren bide oso luzea geratzen zitzaion egiteko eta ez zekien zer aurkituko zuen handik aurrera.

